

# Nafarroako Gobernuak 11,7 milioi euro aurreztu ditu zorpetzearen kudeaketa aktiboari esker

Maileguak aldeztu aurretik amortizatzeak eta tasa baxuagoetara berritzeak aurrezki hori sortzea ahalbidetu du

## Osteguna, 2021ko Abuztuaren 5a

Zor publikoaren kudeaketa aktiboari esker, Nafarroako Gobernuak 11,7 milioi euro aurreztu ditu interesetan.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zorpetze-zorroa aldi behin aztertzen du, merkatuko baldintzek ahalbidetzen badute, etorkizuneko ekitaldietan interesak ordaintzeagatik gastuak murriztea ekarriko duten neurriak hartzeko.

Kudeaketa horren esparruan, interes-tasa txikien egungo testuinguruari eta diruzaintzaren egoera onari esker, ekainean maileguen amortizazio aurreratua egin ahal izan da, 125 milioi eurokoa, eta joan den uztailean 200 milioi euroko maileguaren berritzea formalizatu zen, tasa baxuagoan. Eragiketa horien finantza-kostuetan 11,7 milioi euro aurreztu dira.

Nafarroako Gobernuaren finantzaketa-estrategiaren funtsezko jardura-ildoak honako hauek dira: 10 eta 15 urte bitarteko jaulkipen berriak muga-egunen arabera lehenestea, interes-tasa finkoetan eta eurotan; amortizazio-profil uniforme mantentzea epe ertainean, ekitaldi bakar batean 300 milioi euro baino gehiago zehaztu gabe, eta maileguak eta bonuak formalizatzea, horien zati bat formatuan egiteko helburuarekin.

Estrategia horren arabera, joan den martxoaren 31n, Nafarroako Administrazio Orokorrek Nafarroaren zor-obligazioen 33. jaulkipena formalizatu zuen, 150 milioi euroko nominala, % 0,25ean, eta 10 urteko epemuga.

Gogoratu behar da Nafarroako Foru Komunitatea kreditu-kalifikazioa (rating) taularen goiko aldean dagoela, eskualde kaudimendunen artean. Gaur egun AA- da, Standard & Poor 's agentziaren azken txostenaren arabera, eta bertan, "Autonomia fiskal handiarekiko konfiantza, ekonomia dibertsifikatua eta likidezia independentea" azpimarratu zituen.

Espainiako Autonomia Erkidego batek lor dezakeen kalifikaziorik handiena da, eta herrialdeari emandakoa baino bi maila gorago dago. Horrek aukera ematen dio Nafarroari finantzaketa-baldintza hobek lortzeko.